

H. Knörr-ek eman ditu batzar honen xehetasunak: Egun horretan lehen liburu bat aurkeztuko da, O. de Apraizen lanen bilduma. Geroago bigarren liburu bat, orotariko lanez omenalditzat eskaintzen zaiona, biak Arabako Kultur Kontseiluak argitaratuak.

Batzar eguneko hitzaldiak, asmoz: Euskaltzainburuaren agurra; J. M. Barandiaran eta L. Mitxelena jaunen txostenak.

Ondorean, irakasle titulu berriak banatzea.

g) OROTARIK

J. M. Iriondo jaunak Banka edo diru-etxean hiztegi berezi baten premia agertu du. Hontaz, Aurrezki Kutxa, Elhuyar taldea eta inguru horietan kezkatuak dabiltearen eskaintzearen iritzia agertu da. Adibidez, beste batzuen artean Jose Agustin Arrieta, Aurrezki Kutxa Probintzialak bere enplegatuen artean euskararen irakaskuntzetarako izendatua duenaren bidez, R. Badiola, Euskaltzaindian itzulpen lanetan diarduanari "Banco de Bilbao" k banka hiztegi bat euskaratzeko bidali dionaren bidez, etab. Donostian bilkura bat egingo da eta J. M. Iriondo izendatzen da Euskaltzaindiaren izenean bertara joateko.

J. M. Aranalde jaunak, herrietan Xalbadorren omenaldiak egiten hasi direla eta herriz herri egin beharrean Euskal Herri oso mailan egiteko asmoa dagoela agertu du eta horretarako Euskaltzaindiaren babesa eskatzen du. Ontzat hartu da. Baita ere, Xalbador euskaltzain laguntzaile izendatzeko proposamen hura, arautegiaren araberez.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - XII - 27

Gasteizen, Foru Diputazio jauregian, 1976ko abenduaren 27an, goizeko 11tan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. M. Barandiaran, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; N. Alzola, I. Baztarrika, J. A. Etxebarria, J. Fernández Setien, J. Goikoetxea Maiza, J. M. Iriondo, E. Knörr, J. L. Lizundia, P. Martín, J. A. Retolaza, M. Ruiz Urrestarazu, P. Urribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaileak, J. San Martin idazkari dela.

Davant, Diharce, Hiriart-Urruty, Larzabal eta Mitxelena jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azaroko batzar agiria onartu da.

HAR-EMANAK

Euskaltzainburuak bigarren deia egiten du, arautegiaren 33. artikularen araberez, A. Arrue zenaren hutsunea betetzeko proposamenak eskatuz.

Piarres Lafitte eta Jean Haritschelhar jaunek Piarres Eyheramendy euskaltzain laguntzailearen hil berria aditzera eman dute. Izatez mauleterra zen eta euskara ikasteko zenbait metoduren egilea.

Euskaltzaindia, bere bulego lanetan, inoren multikopia aprobetxatuaz etorri da baina orain bere jabeak eskatu duenez, multikopia berri bat edo serokopiagintzarako makina erostea erabaki da. Beharren arabera eta presopuestoak ikusiaz erosketa hau egitea bulegoko en esku uzten da.

Guadiana de Publicaciones, S. A. gure literaturaren historia labor bat eskatzen digu, *Historia de las literaturas peninsularesn no castellanas* partea osatzeko. Hirurogei planako lana izan behar du eta 1977aren lehen partean entregatua izan behar du. Lan honegatik, ohi den bezala, salmentako %-etik 10a ordainduko du.

Donostiako Magisterio eskolan, Diputazioak sortu zuen euskal katedra hornitzeko, bertarako zuzendari izendatu zen J. A. Letamendia euskaltzain laguntzailearen bigarrenengo bat izendatzea erabaki du Diputazio berberak. Hontaz bigarrenengo hau izendatzeko Gipuzkoako Diputazioak egiten digun eskaria ikusirik, eta Euskaltzaindira etorri diren eskaintzak aztertu ondoren Jose Antonio Mujika Casares proposatzea erabaki da.

Honen bestez bukatutzat ematen da barne batzar hau, Diputazio bereko saloi nagusian Odon de Apraiz Buesa euskaltzain ohorezkoaren homezko bilera idekiaz jarraitzeko.

ODON DE APRAIZ EUSKALTZAIN OHOREZKOAREN OMENEZ

Eguerdiko hamabietan, Arabako Foru Diputazioaren Batzarre Orokorren aretoan bertako lehendakaria, Arabako gobernadorea eta euskaltzain buru jaunek mahaiburuan direla, Euskaltzaindikoak, arabar talde handi bat eta euskara irakasle titulu berriak hartuko dutenek bildu dira. Zoritxarrez, bertan bildu den jendetza guztia ezin izan da sartu. Apraiz jauna ondoez txiki bat emanda ezin agertu izan da, baina beren ilobak daude bere ordez.

Foru Diputazioko lehendakari den Lejarreta jaunak agurrezko hitze-kin ideki du Gasteizko seme jatorra den Odón de Apraiz jaunaren omenaldizko bilera ideki hau.

Era berean, euskaraz eta erdaraz, Villasante euskaltzain jaunak adiarazi du egun zerek ekarri gaituan Gasteizera. O. de Apraiz jaunari gogoko agurra eskaini ondorean Arabako agintariak eta bertako herria agurtzen ditu, Arabak historian zehar euskarari zer eskaini dion gogoratuz.

Ondorean, Jose Migel Barandiaran euskaltzain jaunak, XX. mende honen lehen partean Gasteizen euskal Jakintzaz egin ziren laneri buruzko hitzaldi labor bat.

L. Mitxelena euskaltzaina zen beste hitzaldi bat ematekotan, baina bere etorri ezina adiarazi ondorean, A. Irigaray eta J. San Martinek hitz egin dute.

A. Irigaray euskaltzain jaunak, J. P. Ulibarri arabar idazleari buruz zenbait ohar, O. de Apraiz adiskidearen omenez.

J. San Martin euskaltzain jaunak, Odon de Apraiz jaunaren bizitza eta laneri buruz.

E. Knörr euskaltzain laguntzaile jaunak, Odon de Apraizen obretarik lehen partea aurkeztu du, *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria* (1850-1950) deritzana, eta biltzarkideen artean zenbait ale zabaldu dira. Lan hau lehen tomoko zati bat omen da. Arabako Foru Diputazioaren asmoa da, hiru lau tomotan, O. de Apraizen lan argitara gabeak, argitaratuen bilduma, gutunak eta azken tomo batean bere omenez zenbait euskalarik bidali dituzten lanezko bilduma burntzea.

Ondorean, aurtengo euskal irakasle tituluen diplomak banatu dira, guztira 323.

Arabako gobernadore berria den Ansuategi jaunak, bukatzeko, biltzarkideak agurtu ditu.

Batzar ireki honen ondorean Hostal Iradier-en anaitasunezko bazkaria izan da, eta guziak agurtzera hara agertu da Odón de Apraiz jauna.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin